

MORE edo...

Leire Arano



enkaratu
txanpiku

MORE edo...

Leire Arano

Julene Azpeitia 26. ipuin lehiaketa


2013

Zumaiako onenaren saria

2013ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Leire Arano (ipuinaarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)



Zalantzan nago oraingo gogoeta hauei zer izen jarri, gure artean sortu berri den korapilo honi nola esan: *Morea ez zait gustatzen* edo, besterik gabe, *More*. Horra aukerak. Lehena baita adierazkorrena, azken korapilo honen nondik norakoak ondoen adierazten dituena, baina hain da ederra bigarrena.

More. Izena ere polita du koloreak. Oraintxe konturatu naiz. Hitz arin baina betea, biribil baina fina, olerkiz eta doinuz jantzia, lurreko hemen eta orainera ekarri baino noizbait eta norabaiteko hodei gorri-urdin batera naramana, ametsetara, eta dantzara, besoak zabal neure buruarekiko jirabira geldo atseginean kulunkatzera. *More*. Idatziz ikusita, dakidan ingeles apurra ere etorri zait gogora, eta hitzak jolasti hasi zaizkit: *more more*. Bai, horixe behar dut une honetan: *more* gehiago bazter guztietan. *More* dantza, *more* amets, *more*... Kolore guztien kolore ez ezik, hori guztia ere bai baita niretzat *morea*: dantza, ametsa, alaitasun barea, hegan egitea, arrazoimenaren bide estu-zorrotza bazter utzi eta aire bihurtzea...

Jakin-minak hartaratuta, Petete modernora jo dut, San Googlerengana (gure Eki txikiaren begietan dena dakien horretara, badakizu), *moreak* zer adierazten ote duen ikustera. *Koloreen esanahia* idatzi eta, hara!, segundo batean, hatz batekin *enter* tekla leun-leun sakatzeari beste ahaleginik gabe, jakin nahi izate hutsa beste nekerik gabe, denbora luzean hainbaten aztergai izango ziren horien emaitzak esku-eskura, erruz eta samaldan, norgehiagoka ariko balira bezala, bila dabilenaren begiak non pausatuko, zein aukeratuko. Han-hemenka klik egin, eta horra: oreka adierazten omen du izpiliku-koloreak; purpurak, berriz, baretasuna; anilak, egia; oro har, gorriaren irrika eta gar oldartsuaren eta urdinaren esanekotasun otzanaren arteko nahastea izanik *morea*, munduarekin harreman magiko bat bilatu nahian ibiltzen omen dira *morearen* zaleak; bestalde, gorriaren suharraz eta urdinaren hotzaz sortua den balantze hori zaila omen da aurkitzen, eta norberaren baitan atezu betean egonda ere kanpora begira lasaitasuna azaltzea askotan gertatzen omen zaie horrelakoei. Irakurritako guztiarekin nator bat, eta ezerekin ere ez,aldi berean. Ezer gutxi dakienaren ausarkeria izango da, agian; iritzi sendo-potoloak biribil-biribil emateko atrebentzia.

Baina... zertan nabil?! Nolatan bururatu zait astrologoak diruditen sasipsikologo horiek zer dioten bilatzea?! Pentsatzea ere nor edo nolakoa naizen besteren hitzetan aurki dezakedala, pantailako deskribapen beti positibo horietakoren bat nire identitatearen ispilu izan dakidakeela! Eta horretan aritzea gutxi ez, eta horiek guztiak hemen idatzi! Gainera! Kontua ez al zen, ba, morea gogoko ez dutenak nolakoak diren jakitea? Morea ez gustatze horren atzean ezkutuko zer duten aurkitzea? Horixe esan baitit bizitza-erdia (erdia!?) alboan eduki dudan lagun ustez bihotzeko guztiz gezurrezko horrek. Akordatzen? Popatik, zer arraio!

Amorruaren amorruez ezabatua nuen aurreko paragrafo osoa, saguarekin goitik behera hartu eta, klik, betiko desagerrarazia. Baina damutu egin zait berehala, larritasun moduko batek eraginda, ohartu bainaiz orain-oraingo kezka-eta arintzeko eta argitzeko ez ezik gero-geroko gero batean noizbait irakurtzeko ere idazten dudanez egunkari honetan, ez dela zilegi ez onargarri autozentsura, idatzi ondoren desegoki edo irrigarri edo tontakeria iruditu zaizkidan burutazioak jo eta desagerraraztea, neure baitan sekula sortu ez balira bezala. Sortu baitira, sortu. Haziren baten fruitu. Eta noizbait atzerantzko bideari ekin nahi badiot, iritsia naizen lekura non zehar heldu naizen ikusi, fruitu horien guztien arrastoa beharko dut, esandakoak bezain esanguratsuak baitira esan gabe nahita utzitakoak, mihiari eutsita isilpean gordetakoak, edo hemen, egunkari honetan, ezabatu nahi izandakoak. Beraz, lerro hauek idaztean bururatu eta idatzitako guztiak hementxe geratuko dira aurrerantzean, nahiz eta urratuta, geroan ere jakin dezadan nor izan nintzen eta zer izan zitzaidan noizbait mingarri, irrigarri, lotsagarri, ezkutagarri... ~~Gu guztion mila aurpegiak, ikusi eta onartu beharrekoak denak, aldarazteko bada ere.~~

Kaka zaharra! Teoria, teoria eta teoria. Zein ederki dakidan teoria. Eta praktikan zer? Ikusi, jabetu eta onartu? Baita zera ere! Zer da ba erraza geure burua engainatzea, hitz eder eta esaldi biribilak botaz zertan ari garen badakigula sinetsaraztea. Putza! Zigarro bat erretzera noa.



Petral nabil, neure buruarekin eta morea-ez-zait-gustatzen-ekin eta mundu osoarekin haserre. Edo minduta, agian. Bai, minduta. Era guztietako minak dauzkat oraintxe barru-barruan. Ilargi ondoan banu berehala hasiko litzaidake kantuan, oraingo alaba ia emakumetu honi artean mari-mintxo mimoxa zenean hainbestetan xuxurlatu nion Juan Kruz Igerabideren olerki xarmagarri hura, guk abesti bihurtua, gogoan: *Ai, minak, ai minak / maxi-minak, mini-minak / dolu-minak, maina-minak, / ondo tolestutako minak / min purtzilak, min mixkinak, / min gurinak, min gordinak, / ai, minak, ai minak*. Eta on egingo lidake horrek. On egin dit horretan pentsatze hutsak. Eta oraintxe ohartu naizenez, *xuxurlatu* eta *xarmagarri* esateak ere bai. ~~Hain da goxoa x-ren hotsa, hainbesterainokoa da x ahoskatze hutsak sorrarazten didan baretasun, samurtasun eta alaitasun egiazkoa, munduan diren ixa eta more guztiak batu eta Imanolek kantuz azaldutako amets berberari jarraituz mundua *morex* jantziko bainuke *Jainkoa banintza*, horrek berorrek ekarriko bailuke pozaren pozez denok dantzan jartzea.~~

[Esaldia ikaragarri kurtsia delako ezabatu nahi dut. Eta bai, *kurtsi* idatzi dut, erdarakada hutsa dela jakitun eta lanbidearen ajeari eta nire ohiko zuzentasun-beharrari kostata baina egoskor aurre eginda, horrelaxe atera zaidalako eta hiztegiek ordainetan ematen dizkidaten *itxurati*, *pinpirin* eta *gustu txarreko* horiek hor balio ez didatelako. Oraingoa behintzat, gora euskara mordoiloa.]



Iruzur hutsa bihur daiteke idaztea; ameskeria. Plazeraren plazerez direnak eta ez direnak sortzea. Hitz solteak elkarrengana batuz esanahi bete aldakorreko esaldiak sortzeko jolasa da, alde batera; neure baitan iheskor azaldutako ideia, irudi, doinu eta sentsazioak betiko jasota uzteko bidea; eta bestera, nik sekula pentsatu, ikusi, entzun eta sentitu gabeak hitzek beraiek jolasean nire baitan sortzekoa. Ez baitakit idatzi berri ditudanak neure baitan nonbait bazirelako agertu diren, ala alderantziz, pentsamenduan solte azaldutako hitzak alde z edo moldez lotu beharrak sorrarazi dituen horiek. Eta hala ere, lehengo bidetik jarraituko dut, ezinbestekoa eta arnasa baitzait hitza, izandakoak jasotzeko, direnez ohartzeko, eta izango direnak amestu, sinetsi eta sortzeko. Erabat aproposa iruditzen zait Frommek esan omen zuen hura: *Bizitzearen artean, aldi berean bi-biak da gizakia: artista eta artelana, eskultorea eta marmola.*

Sortze horretan, ba, bihur nadin morex. Begiak itxi, eta hitza mantso esan; buruan kolorea irudikatu, hotsaren samurra entzun, arnasa sakon hartu, eta gorputzari egiten utzi. Utzi.

Lepoa alfertu, eta burua erori; sorbaldek pisua galdu, eta enborrak lurraren deiari men egin; atzetik, astun, besoak; hankak ere badoaz; eta horrela, ni neu oso-osorik lurrarekin berdinduta, orain bertan lur honen gainean ni more hau guztia eta hori besterik ez naizela badakidanean, has ninteke aire izaten, eta amets. Besoek igo egin nahi dute, hegan egin. Buruak jarraitu egiten die, hegaldian sortutako olatu isil ia sumaezinetan kulunka. Eta oinak jirabiran hasi dira, mantso, batak bestea galdu nahiko ez balu bezala, betiko bidelagun, betiko kide. Eta orain, barrua kanpoan ageri da. Eskuek kiribil amaierarik gabeak marrazten dihardute, barrutik kanporakoak, kanpotik barrurakoak, eta gorputz osoa haiei jarraika, ezker-eskuin eta eskuin-ezker, mantso, zorabio ederrean, lerro kurbatu perfektuan, hatz puntetatik hasi eta behatzetaraino pintzel malgu bigun bat balitz bezala, mila tonutako kiribil moreak marrazten. Eta errealtatearen eta ametsaren arteko mugan murgilduta nagoen honetan, berdin dio hori guztia benetan horrela izan den edo ez. Morex marraztu dut, nik hura eta hark ni, eta horrek axola du, ez beste ezerk. *Zentroak ez du mugitu beharrik, eta edonon dago.* Egia biribila, Peru Magdalenari irakurri eta ikasia. Zentroak ez du mugitu beharrik.

Bare nago orain, lasai, baina ideien kate amaierarik gabe horri jarraika gogoeta hauen funtsa ahaztu zait, eta korapiloak hor jarraitzen du, ohera doala eta *gau on* esatera etorri denean Gorkaren begirada ilunak gogorarazi didanez. Heldu beharko diot horri, eta erabaki ere erabaki dut gogoeta hauei zer izen jarri.

MOREA EZ ZAIT GUSTATZEN

Horixe esan dit arratsaldean, llargiren ohe-bururako altzaria prestatzen ari nintzenean, zer kolorez margotu erabaki ezinean laguntza eske joan natzaionean. Zapi more bat neukan jarrita altzariaren gainean, margotu ondoren nolakoa geratuko den errazago irudikatzeko edo, eta hotz antzean bota du, esaten ari zenaren pisuaz erabat oharkabe. *Morea ez zait gustatzen. !?!?!?!?!?* Zur eta lur geratu naiz. Izotz bihurtu zait gorputza; norabide galduko gezi bizkor zorrotza, burua. Denboran eta espazioan noraezean, gu bion atzo eta gaur guztietako txoko-bazter kontaezinen irudi samalda ekarri dizkit gogora, nahaspilan, oroimenean nonbait gordetako argazkiak balira bezala, ikus nezan, eta neurtu, zenbaterainokoa zen entzun berri nuena. *Morea ez zaizu gustatzen?*, galdetu diot, ziurtatzeko baino, oroimenaren albumetik berreskuratutako irudi more-ukituko haiek guztiak ordenan jartzeko. Harrituta begiratu dit, esan berri zuena guztiz kontu hutsala zela sinetsita nire ikara-aurpegia zertara zetorren ulertu ezinda edo. *Ba, ez; apaizak edo Aste Santuko prozesioak edo ez dakit zer ekartzen didan gogora, eta ez zait batere gustatzen morea.* Glub. Txistua ez gora ez behegeratu zait eztarrian, trabatuta. Hanka-sartzeren bat egin duela sumatu eta zehazki zertan izan den ez dakienaren begirada ikusi diot. Lurrera begiratu du. Niri begiratu dit gero, *zer gertatzen da ba?* esanez bezala. Eta nik harri eta zur jarraitzen nuen. Entzundakoa irentsi ezinda. Ulertu ezinda. Eta ulertu beharra neukan. *Baina ez zaizu more-tonu hori gustatzen ala ez zaizu morea gustatzen?* Badakit horrela esanda, orain, txiste bat dirudiela, txiste txar eta eskas bat, telenobela zozo horietako eszena barregarri bat, baina nik, une hartan, egoeraren garrantziaz jabetu beharra neukan. Gertatua larria izan zitekeen, oso ere larria, gure arteko harremana bertan beheara uzterainokoa, edo tontakeria bat, bestela, nabardura-kontua, pintura-potoan beltz pixka bat edo gorri pittin bat botata konpon zitekeen huskeria bat. *Ez dakit, ba. Kolorea, tonua... Nik zer dakit, ba!?* Lanak zituen ulertzen zergatik nenbilen hain tematuta kolorearen kontu horrekin, zergatik ari nintzaion behin eta berriro kontu berberaz galdezka, zergatik neukan gorputza tenk, aurpegia zurbil... *Etxe osoa morez josita dago eta!!!* Horrelaxe bota diot. Horrela atera zait. Erabatekoa nuen harridura. Gorkak esandako esaldi ditxosozko hura nire buruan irudikatu berri zitzaidan puzzle irudiz osatu hartan kokatu ezina. Dena ageri baitzitzaidan more une horretan: oraina eta iragana, neure burua eta seme-alabak, apaingarriak eta arropak. Dena. Halaxe izan da beti, gure beti osoan. *Baina nolatan ez didazu inoiz esan?!*

Egongelara joan, eta sofan eserita ingurua aztertzen hasi naiz, barrura begira lauso nabari nuena kanpoan garbi ikusi nahian edo. Gu lauron argazki kuttunak morea du markoa, eta moreak dira sofako kuxinetatik hiru, sabaitik zintzilik bazterrean dauden bi lanparatxoak, leiho ondoko izpilikuak, argazkiak gordetzeko bi kutxak, han-hemenka dauden kandela zenbait... Gure logelan ere moreak dira burkoen azalak, eta komoda gaineko oihala, eta hiru orkideak... Bainugelan moreak dira eskuzapiak, eta alfonbra, eta gauza txikiak txukun gordeta edukitzeko kalamuzko saskitxoak... Nire mendiko txamarra, negu partean ia kendu ere egin gabe erabiltzen dudana, nire *uniformea*, morea da; eta udan hemengo ohiko freskuratutako babeste aldera sorbaldan jarri ohi dudana zapi handia ere bai. Ospakizun berezietan eta, apain eta dotore egon nahi izaten dudanean, soineko morea janzten dut gehienetan. Kamiseta eta sandalia moreak nituela ezagutu genuen elkar. Eta, hara!, morea zen gure aurreneko zita haietan Gorka kitzikatzeko janzten nuen lentzeria! Baina, nolatan ez dit inoiz esan?

Buruan galdera hori nerabilela ibili naiz etxean hara-hona arratsalde osoan. Elkarrekin bizitzen hasi gineneko garaiak etorri zaizkit gogora. Ez dira atzo goizeko kontuak. Sosik gabe, eta pozik hala ere, ahal genuen moduan osatu genuen etxea. Kartoizko lau kaxari gainean bi ate zahar jarrita sortu genuen egongelako mahaia, eta leihoetan paper zuri fina itsatsita, errezelak; beirazko barazki-potoak margotuta egin genituen lanparak, eta jertse zaharren hariak erabiliz, armairuen ateak; etorri ginenerako hondatuta zegoen hozkailu hura berehala bihurtu genuen estudioko pinturentzako mahai, eta amandrearena izandako egongelako armairutzarra, egongelako sofa. Zer zen hura! Zeloarekin eta oihalekin konpontzen genuen dena, eta ederki asko gainera. Apurka-apurka, gelaz gela, etxeari gure doinua eman diogu, eta orain, azkenean, gure barne-taupadetara erabat egokitua dugu habia, gure txokoa. Edo horretan nengoen behintzat ni, edozein gelatako edozein bazterretan morea ageri baitzait begien aurrean. Buruan mailuka daukat galdera. Galdera. Galdera. Hau itolarria! Dutzara noa.



Nolatan ez dit inoiz esan? Nolatan ez dit inoiz aipatu ere egin morea ez duela gogoko, apaizak-eta gogorarazten dizkiola, deseroso sentiarazten diola...? Hainbeste urteren ondoren! Nola liteke? Eta hori ezkutuan gorde badu, zer gehiago ez ote dauka isilpean? Zer arraio dakit nik Gorkaren gustuez, zer duen benetan gogoko eta zer ez? Zer arraio dakit nik Gorkaz? Ezagutzen al dut benetan? Zer demontreko harremana da gurea! Mmmm, hemen bai ederki! Egun osoa emango nuke ur-zurrustaren azpian epel-epel, ura goxo-goxo burutik behera nola erortzen den sentitzen. Tira! Kontu honi behar baino garrantzi handiagoa ematen ari natzaio, agian. Hain larria ere ez da. Beharbada adeitasun hutsagatik gorde du orain arte isilpean. Badakielako nik oso gustukoa dudala kolorea. Ez zidalako poza zapuztu nahi. Edo, agian, horrelako kontuak bost axola zaizkiolako izan da. Horixe izango zen, bai. Badakit-eta nolakoa den! Galdezka joan natzaion guztietan berdin izan zaio egongelan kuxin laranja ala berdeak jartzea, edo logelako armairua egur-kolorekoa uztea ala zuriz margotzea, edo sukalderako mahai-zapi urdina ala gorria erostea... Horrelako kontuak berdin izan zaizkio beti. Bai, ba! Hain da apala! Ezer gutxirekin pozik asko eta patxada ederrean bizi da. Egia da, bai. Horrelakoxea da. Bizitza honetan benetan funtsezkoa denari ematen dio garrantzia. Eta ni, berriz, beti txikikeriatan galduta. Beragandik ikasi behar nuke. Putza! Hau erremina! Ura behar dut, ea joaten zaidan begietatik xaboia. Ai, hau mina! Baina nola izango da ba berdin kuxinak laranja edo berdeak izatea, edo sukaldean sartu eta mahai-zapi urdina edo gorria ikustea... Nola izango da ba berdin! Kontua da askoz errazagoa zaiola kontu horiek nire gain uztea. Erabaki beharrik ez. No te jode! Nik ere egingo nuke. Mmmm! Zer usain goxoa! Bete-beteen asmatu zuen krema honekin. A zer ezustekoa oparitu zidanean. Dendan atentzioa eman, usaina gustatu, eta niri ere atsegina irudituko zitzaidalakoan niretzat erosi zuela. Ke majo. Egia esan, dekorazio-kontuetan eta ez, baina bestela bada ba detailezalea mutila. Konplitu. Eta nik ere, egia esan, galdetu bai, askotan galdetu izan diot bere iritzia, baina nireaz

bestelakoa izan denetan zenbat aldiz ez ote dut gero nik nahi dudana egin, berak esandakoari muzin eginda. Horrela, jakina, normala halako batean iritzia emateari ere uztea. Zer naiz ba ni neurea. Entzuten ikasi behar dut, eta tarteko bideetatik ibiltzen ikasi. Dena ez dela beltza edo zuria. Amak ere esaten zidan, neurea egin arteko bakerik ez dudala izaten. Berrogeita bi urte bete behar eta oraindik horrela, arraioa! Neurosia ote da nirea? Hala bota zuen aurrekoan Julenek bulegoko sukaldean, hamaiketako tartean ohiko lankideak eta bi bilbotar haiek elkartu ginen goiz hartan, etxeko dekorazioaz eta ordenaz ari ginela aipatu zuenean min egiten ziola liburuetan orri-muturrak tolestuta ikusteak eta apaingarriak zegozkien lekuez bestelakoetan egoteak, neska-laguna askoz lasaiagoa dela horrelakoetan, baina ezin eska diezaiokeela apaingarri bakoitza modu jakin batean jartzea, kontu horiek maniak direlako, bere maniak, eta nork bere zoroa bizi duela, bera dela neurotikoa. Neurotikoa. Hala esan zuen Julenek, eta hark asko daki, gai horretaz eta bestelakoez. Gero hiztegian begiratuko dut zer den neurosia, agian nirea ere hori da eta. Kaguenla! Ederra egin dut! Nire neurosiengatik lur jota geratuko zen Gorka. Bai, betilun ibili da arratsalde osoan. Gizajoa! Bainugelatik irten bezain laster musu potolo bat emango diot. Ea disgustua pasatzen zaion. Baina, zer kristo! Nork utzi du lanbasaren ontzia urez beteta hementxe, bainugelako atearen pare-parean? Kaka putza! Eta orain hau guztia lehortu behar? Ez al da inor etorriko laguntzera? Putza, putza eta putza!

Zer da ba berritsua giza garuna! Beti bakarrizketa etengabea. Isiltasunari tarterik utzi ezinda. Ez ordenarik ez logikarik gabeko pentsamendu-kate zorotan galduta. Saiatu naiz dutxan zer pentsatzen aritu naizen gogora ekartzen, burua nondik nora ibili zaidan jabetzen, eta aitortu beharra daukat: ezinezkoa zait. Sentsazioak baino ez zaizkit geratzen. Eta irudiak. Kolore hil eta bizikoak, sentimenduak bezala.

Hemen, isiltasun betean idazten, oso bestelakoa da egoera. Pentsamenduei jarraitzeko aukera daukat, eta etenak egitekoa. Zerbait bururatu eta *pause* botoia sakatzekoa. Baina ez. Hori ere ez da horrela. Pentsatu bezain bizkor idatzi ahal banu behintzat. Baina ez. Ideiek ihes egiten didate, zerura begira adi-adi egonagatik ere izar uxoez begiei ihes egiten dieten bezala. Zerbait ederra ikusi-pentsatu dudala sentitu, eta ttip, berriro ikusi-pentsatu nahi izandakoan, kale, joan da, desagertu. Eta arrasto bat baizik ez du uzten atzean, ondorenean, erabat ziur egon nadin hain eder sumatutako hori benetan izan dela neure baitan. Sentsazio baten arrastoa, horra geratzen zaidan bakarra.

Dutxan buruan ibilitakoen sentsazioak askotarikoak dira. Ohartzen naiz amorrua sentitu dudala, eta barkatzea; samurtasuna ere sentitu dut, eta bakarrik sentitzea, agian erruduntasuna, neurosiaren kezka...

Jakin-minari eutsi ezinda, hiztegiara jo dut azkenean. Kopiatu egingo dut han irakurritakoa:

Neurosia, Elhuyarren Zientzia Hiztegiaren arabera: nerbio-sistema zentraleko gaixotasun funtzionala, antsietate-, fobia-, obsesio- eta konbultsio-eran agertu ohi dena.

Definizio horri jarraituzera, ez da neurosi-neurosia izango nirea. Fobiarik ez, konbulsiorik ere ez, baina egia esan, antsietate pixka bat bai eragiten dit etxearen itxurak, eta gelaren bat edo altzariren bat aldatzeko grina sartzen zaidanean, obsesio apur bat ere izaten dut batzuetan. Kaskezurrean llargiren logela aldatzea sartu zitzaidanean, adibidez; hainbeste egun eman nituen logelako bazterrak neurtzen, zirriborroak eta planoak egiten, altzariak bazter batean eta bestean probatzen eta abar, azkenerako Gorka gaixoak SMS bidez esan behar izan baitzidan egun haietan guztietan elkarren ondo ondoan ibiliagatik entzun ere entzun ez niona: *Neurtu nazazu, edo estutu, margotu edo zuk nahi duzuna. Baina erabil nazazu, mesedez!* A zer barreak lantokian mezua jaso nuenean. Beraz, bai, agian obsesio izpi batek bai harrapatzen nau batzuetan. Baina axola al du horrek benetan? Axola al du tarte batez barne-oreka galtzeak, horrek denbora luzean inguruan oreka izan eta sentitzea badakar ordainetan? Eta askok gaitzesgarri deritzoten obsesio hori ez al da goresgarri jarraitasuna eta ahaleginean jardutea dakartzanetan? Txanpon eroren bi aldeak, batak agerian eta besteak ezkutuan nahi izaten ditugunak.

[A zer tontakeria]

Gizabanakook bietatik erdibana daukagu, baina. Argi goresgarrietatik eta itzal gaitzesgarrietatik, erdibana. Eta nik ere bai. Neure buruaz harro erakutsi egin nahi izaten ditut bata, eta neure buruaren lotsaz ezkutuan gorde, besteak. Zenbat eta zenbat beldur eta lotsa eta inbidia eta ezin, ezkutuan, itzaletan, ilunpean. Agerian beti ni sendo eta segurua, ni jantzi eta jakituna, ni samur eta maitekorra, ni alai eta barea. Ezkutuan, ni zalantzaz josia, ni ezjakin eta zozokerien zalea, ni amorratu eta inbidiak hartua, ni goibel eta gorabeheratsua... Gauza ederra litzateke, ba, une oro naizen bezalakoxe eta nagoen bezalaxe agertzea, itxurakeriak baztertu eta denen aurrean mozorrorik ez armadurarik gabe agertzea. Pertsona arrunt-arrunt bat naizela lau haizetara oihukatzea. Hori baino ez eta hori guztia. Aurrena neuk onartu behar, ordea.

Zigarro bat erretzeko etenalditxoan nengoela (edo atsedean pixka bat hartzearen zigarro bat erretzen ari nintzela, auskalo!), ametsetan harrapatu dut berriro ere neure burua. Gogoeta hauek literatura-lehiaketa batera aurkeztu, eta saridun gertatu dela; argitaratu ondoren, denek irakurri dutenez, ez dut itxurakeriatan jarraitu beharrik; diru-sariarekin txelo berri bat erosi dut, benetako txelo bat, bestela neure buruari sekula oparituko ez niokeen bat, eta ez orain daukadan jostailu moduko sasitxelo hau; atzealdean nire ikur kuttuna grabatu diot, kiribila, eta orain nire-nirea da, nire-nire txeloa; eta nik hura laztanduz eta hark ni besarkatuz, pieza zoragarri bat dantzatu dugu elkarrekin; hatzak dantzari dabilzkit haren lepoan gora eta behera, arin, jauzika trebe, eta arkuaren doinu ezitia plazer hutsa da. Orain ere ametsetan, ipuineko esnezalea bezala. Eta zer? Bejondeidala! Puskatuko ahal da marmita! Horretan ere ez gara gu biok zur bereko ezpalak: lo egote hutsagatik ez duela amets egingo esango luke Gorkak, eta nik, berriz, esna egote hutsagatik ez diodala amets egiteari utziko. Eta agian horrexek salbatzen gaitu, nire ameskeriei oin azpian maiz falta zaien lur sendoa ikusten baitut nik harengan, eta ametsetan hasita hegoek kale eginda ere muturrekoa ikasbide dela hark nigan. Oreka ematen omen diogu elkarri. Zenbat aldiz entzungo nuen hori. Eta aitortu beharra daukat: neure baitako barne-bide orekatu erabatekotik begiratzen diodanean, guztiz eder ageri zait elkarri oreka ematen dioguneko irudi hori, elkarren osagarri ez baina elkarri lagungarri gatzazkionekoa. Barne-bidea ordekan

doanean gertatzen da hori, baina. Zenbaitetan, ordea, errusiar mendi hutsa bihurtzen zait barrua, eta halakoetan, errio berean egon baina elkarrengana iritsi ezin duten bi txaluparen moduko ageri zait egoera: marearekin batera errioan gora bata, eta errioan behera bestea. Itsasgoran eta itsasbeheran elkar hartuko bagenu sikiera. Noiz dio egia bihotzak? Noiz egin behar nioke kasu, gora eta behera jolasti eta oinazez dabilenean, ala patxada ederrean bare dagoenean? Noiz agertzen da nire nirik niena? Ekaitzaldiek erakusten ote digute nora begira jarri behar dugun ontzia, ala barealdia heldutakoan ageri den paisaia da margotzen jarraitu beharrekoa? Eta areago, zer egin morea denean nagusi batean nahiz bestean, ekaitzaldi nahiz barealdi guztietan? Zer egin orain, horretaz bete-betean jabetu naizen honetan? Dena zait galdera, eta galdera baino ez dena. Galdera hutsa. Eta berriro ere ditxosozko kontzeptu hori, azken boladan kanpo-barne guztietan ageri zaidana, erabatekoa den hori eta ezereza bi-biak adierazten dituen. Hutsa. Abiapuntu eta jomuga. Eta tartean, bidea. Aurrera begira sekula ageri ez dena; atzora begira baizik ikusten ez dena. Sekula bilatu behar ez dena; topatuz egiten dena. Hutseranzko bidea. Nekea.

Goizeko ordu txikiak dira, eta jota nago. Ohera noa. Morea-ez-zait-gustatzen-en ondora. Bihar porru eginda egongo naiz, eta Gorkak eta biok hitz egin beharko dugu gaur gertatutakoaz. Zer esan, baina? Orduak eman ditut zurian beltz eginez, eta askorik ez dut argitu gaurkoan. Baina gauza bat behintzat garbi daukat: zeuden-zeudenean gauzak ontzat neuzkan honetan, ezin has naiteke hainbeste urtean pixkanaka-pixkanaka harmoniaz orekatu ditudan bazter eta txoko guztiak moldatzen, kolorez aldatzen, goxotasuna eta baretasuna aurkitzeko beste bide bati ekiten, berriro hasten, berriro asmatzen, dena aldatzen. Hortaz, morea-ez-zait-gustatzen maitea, barkatu baina, gauzak aldatzen hasita, etxetik zu kentzea onena.